


“Iparraldea XXI” dokumentala


Euskal Kultur Erakundeak, Gipuzkoako Diputazioarekin partxuegoan, 17 minutuko film dokumental bat plazaratu du, “**Iparraldea XXI**”. Filmaren egileak : **Medialab** ikusentzunezko lantegiko Juhane Dascon eta Maxence Peyras. Dokumental hori gazteentzat egina da eta berezikiago Hegoaldeko gazteentzat, Iparraldeaz dituzten betiko “klixex”

edo irudiak aldarazteko. Dokumental hori ekoiztu aitzin, filmegileek halako “micro-trottoir” edo ikerketaño bat egin dute Donostiako karriketan, jakiteko zer zioten hango gazteek Ipar Euskal Herriaz. Iparraldea haientzat da “pastoral, maskarada, hotza, euskara bitxia...” Irudi hori kanbiatzeko da beraz ekoiztua izan 20.000 euro gosta den dokumental berri hau. Hunek Iparralde hunen bertzelako irudia erakusten du : 17 minutuz, ikusten dira molde dinamikoan EHZ



Xala pilotaria, dokumental hunen gidaria, uretan ere pilotan bezain trebe...

festibala, surfa, kantua (Amaren Alabak batetik, Mak rap taldea bertetik), dantza hirian, bertsularitza (Amets Arzallus, Maiana Irigoyen)... Hori guzia **Xala** lekuindar pilotariak kudeaturik, egiten dituen elkarriketen bidez. Ez zitekeen zubiegile hoberik Iparra eta Hegoaren arteko loturak finkatzeko. Dokumental hau DVD moduan ekoiztua da, bost hizkuntzatan (euskara, frantsesa, gaztelera, inglesa eta katalana) eta internet sarean ere aurki daiteke oraidanik, urrik,



www.iparraldea.info gunean bai eta ere gazteek dituzten guneetan, youtube, euskaltube, facebook, dailymotion eta bertze... Bertzalde, Gipuzkoako Diputazioak antolaturik, apirilaren 21ean eta 22an Donostian iragan beharrak diren Gipuzkoako euskara teknikarien topaketetan aurkeztua izanen da. Bai eta ere Euskal Kultur Erakundeak hamar egun barne Bartzelonako Unibertsitatean antolatzen duen *Batekmila* erakusketan.